

## Obra txikiak

Obra txikiak egituran, fatxadetan antolakuntzan edo hornikuntza nagusietan eraginik ez duten obrak dira.

Obra txikiak burutzeko ondorengo pausuak jarraitu behar dira:

1. Eskabide orria bete eta udalean sarrera eman.
  2. Eskabidearekin batera obra burutzeko aurrekontu guztiak eraman behar dira.
  3. Udalaren baimena jasotzerakoan obra hasi ahal izang da.
  4. Obrak, Baimenean jasotako baldintzak beteaz burutuko dira.
  5. Obrei dagokien tasak ordainduko dira.
  6. Obrak burutzeko kontenedorea jarri edo andamioak behar badira, ondorengo baldintzak bete beharko dira:
- Udaltzainekin harremanetan jarri kontenedorea edo andamioa non jarri daitekeen aztertzeko.
  - Eskonbroak bideratzeko tolbak erabili behar dira.
  - Okupazio publikoari dagokion tasak ordaindu hauek kentzen direnean (Tasak eguneko eta azalarekiko kobratzen dira).

Eskabide orria eskuragarri [hemen](#).

## Obra nagusiak

Obra nagusiak, egituran, hornikuntza nagusietan eta fatxadaren antolakuntzan eragina duten obrak dira. Eraikin berriak ere Obra nagusiak dira.

Obra nagusiak egin ahal izateko, arkitekto batek edo tekniko eskumendun batek sinatutako eta arkitekto Elkargoak edo dagokion Elkargoak ikusonetsitako egitasmoa aurkeztu beharko da obra baimen eskariarekin batera.

Egitasmoak ondorengo **dokumentuak** jaso beharko ditu:

1. Txosten tekniko(a) (justifikazio urbanistikoa jasotzen duena)
2. Segurtasun eta osasunbide azterlana
3. Baldintza plegua
4. Aurrekontua
5. Behin obrak bukatuta, obra bukaerako ziurtagiria ere ekarri beharko da.

**Obra berria denean**, honetaz gain ondorengo pausuak eman behar dira:

- Telekomunikaziotako egitasmoa berezia
  - Obra amaierako dokumentazioarekin batera honako dokumentuak ekarri behar dira:
1. Ura, argindar eta gasaren instalakuntzen altako buletinak
  2. Obra berriaren aitopen eskriturak
  3. U-4 inprimakia beteta
  4. Eraikinaren argazkiak



- Lehen erabilera baimena eskatu behar da: Udalak, bertara ikustaldi bisitaldia egin ostean eta obrak emandako baimenaren arabera burutu direla ikusi ondoren Lehen erabilera baimena emango du.

Eskabide orria eskuragarri [hemen](#).